

Lantz herria ipuinaren gidoitxoa.

(Miel Otxin eta Zaldiko herrira heldu dira.)

ZALDIKO. Kar, kar, kar. Non gaude?

MIEL OTXIN. Lantz herrian, Zaldiko.

ZALDIKO. Gose naiz.

MIEL OTXIN. Eta ni ere bai.

ZALDIKO. Egarri naiz.

MIEL OTXIN. Eta ni ere bai.

ZALDIKO. Emakume, ekarri ogia. Kaxka-kaxka.

MIEL OTXIN. Gizon, ekarri patatak. Kaxka-kaxka.

ZALDIKO. Emakume, ekarri ardoa. Zanga-zanga.

MIEL OTXIN. Begira Zaldiko, hor dago Ziripot.

ZALDIKO. Ziripot, pot-pot, eman dirua.

ZIRIPOT. Ez, pobrea naiz.

(Zaldikok Ziripot bultzatu du eta Ziripot lurrera erori da.)

ZIRIPOT. Lagundu, lagundu!

(Herriko jendeak Ziripoten oihuak entzun ditu eta Ziripot laguntzera joan da.)

TXATXOAK. Bat, bi eta hiru, altxatu! Gaiztoak zarete.

ZALDIKO ETA MIEL OTXIN. Ez, zintzoak gara.

(Miel Otxin eta Zaldiko preso hartu dituzte, baina Zaldikok ihes egitea lortu du eta korrika mendira joan da.)

TXATXOAK. *(Oihuka)* Miel Otxin, erre egingo zaitugu, Miel Otxin, gaiztoa zara zu!

ALVAREZ PRIETO, Dan, *Lantz herria*, Bruño, Madrid, 1992.